BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
OGASUN ETA FINANTZA SAILA
SEGURTASUN SAILA
INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1325

34/2014 DEKRETUA, martxoaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan izandako denboraleak direla-eta emateko diren aparteko laguntzei buruzkoa.

2014ko urtarril, otsail eta martxoko denboraleek kalte handia eragin diete ondasun publikoei eta pribatuei, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten enpresei ere, batez ere, udalerri jakin batzuetan; horrenbestez, behar-beharrezkoa da, elkarrekin ondo koordinatuta, neurriak hartzea, kalte horiek nolabait arintzearren.

Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoak jarduera ekonomikoaren sustapen, garapen eta antolaketaren arloan duen eskumen esklusiboaren babesean ematen da. Eskumen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.25 artikuluan aurreikusita dago, bai eta 10.10, 10.27, 10.30, 10.31, 10.36 eta 17. artikuluetako eskumen sektorialetan ere.

Azaldutako guztia oinarri dela, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren, Segurtasuneko sailburuaren eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak proposamena 2014ko martxoaren 11ko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Dekretuaren xedea.

Dekretu honen xedea hau da: 2014ko urtarril, otsail eta martxoan izandako denboraleen ondorioz, nautika-arrantzan, industrian, merkataritzan, arrantzan, zerbitzuetan, ostalaritzan edo turismoan, eraikuntzan, etxebizitza arloan eta auto eta ontzien arloan Euskal Autonomia Erkidegoan izan dituzten kalteak arintzeko laguntzak esleitzea.

2. artikulua.– Laguntzak.

1.– Dekretu honetako laguntzen ezaugarriak: finantza-erakundeek aktibo kaltetuak birjartzeko edo konpontzeko kaltetuei esleitzen dizkieten lehentasunezko maileguen interes-tasak murriztea. Onuradun bakoitzak eska dezakeen maileguaren gehienezko zenbatekoak ez du gaindituko laguntzen gai diren inbertsioen balioa, halaxe baitago jasota dekretu honetako 7. eta 11. artikuluetan.

2.– Ibilgailu automobilen kasuan, laguntzak IV. kapituluan aurreikusitako diru-laguntzak izango dira.

3.– Ontzien kasuan, laguntzak V. kapituluan aurreikusitako diru-laguntzak izango dira.

3. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak dira beste administrazio publiko batzuek ematen dituzten laguntzekin. Era berean, dekretu honetako II., III., IV. eta V. kapituluetan aurreikusitako laguntzak elkarrekin bateragarriak dira.

2.– Onuradunak autonomia-erkidegoko Administrazioari jakinaraziko dio beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutik helburu berbererako diru-laguntzarik edo laguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik jaso ote duen.

4. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Dekretu honetan ezarritako laguntzak emateko diru-baliabideak 2014ko aurrekontuaren kontura emango dira, hain zuzen ere, «Sailen zenbait gastu» atalaren kontu-sailetatik hartuta.

5. artikulua.– Kalteak kreditatzea eta kaltetua izatea.

1.– Denboraleen ondorioz izandako kalteak egon badaudela eta horien zenbatekoa ofizioz kreditatu beharko ditu autonomia-erkidegoko Administrazioak. Horretarako, 30/1992 Legearen 3.2 artikuluan aurreikusitako lankidetza- eta koordinazio- printzipioak baliatuz –horiexek gidatzen baitituzte administrazioen arteko harremanak–, kalte horien tasazioari buruzko argibideak eska dakizkioke Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoari.

2.– Norbait kaltetua dela ofizioz frogatuko du Administrazioak, eta interesdunak ez du aldez aurretik ziurtagiririk aurkeztu beharko.

II. KAPITULUA

ETXEBIZITZAK ETA ERAIKINAK KONPONTZEKO MAILEGUAK

6. artikulua.– Pertsona eta entitate onuradunak.

Ondorengo artikuluetan ezarritako berariazko baldintzak betetzen dituztenak izan daitezke kapitulu honetan ezarritako laguntzen onuradun:

a) Denboraleek eragindako etxeen, eranskinen edo elementu komunen jabe, gozamendun edo maizter diren pertsona fisikoak. Nahitaezko luzapena duen kontratua duen maizterra izanez gero, konpondu beharreko etxebizitzaren edo eranskinen titularraren baimena beharko dute.

b) Nagusiki etxebizitzetarako diren eraikinen higiezinen jabe-erkidegoak, denboraleek elementu komunetan kalterik eragin badiete.

c) CNAE 41, 42 eta 43 eraikuntza-enpresak, burutze bidean diren eraikuntza eta/edo urbanizazio lanak eduki eta denboraleek kalterik eragin badiete.

7. artikulua.– Laguntza jaso dezakeen inbertsioa.

1.– Kapitulu honen ondorioetarako, konpondu eta/edo beste bat jartzeagatiko zenbatekoa subentzionatu ahal izango da, baldin eta kalteak honako hauetan gertatu badira:

a) Batez ere etxebizitzarako diren higiezinen elementu komunak.

b) Etxebizitza, garaje edo trastelekurako diren elementu pribatiboak.

c) Batez ere etxebizitzarako eta/edo urbanizazioetarako diren eraikinak eta/edo burutze bidean diren urbanizazioak.

2.– Oro har, kalteak zenbatzeko beharrezkoa izango da kasuan kasuko konponketa-proiektua aurkeztea, teknikari gaitu batek egina, ondoren, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitzako lurralde-ordezkariak onar dezan. Proiektuak denboraleen ondorioz sortutako kalteak konpontzeko obrak gauzatzearen aurrekontua jasoko du, bai eta proiektua idatzi eta gauzatzeagatiko gastuak eta aipatu obra dela-eta ordaindutako edozein tasa edo prezio publiko ere (BEZa kanpo).

Babes daitekeen inbertsioak inoiz ere ezingo du gainditu honako zenbateko hau: obren guztirako aurrekontuari beste laguntza batzuen zenbatekoa eta Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak eta aseguru-etxeek aurreikusitako kalte-ordainen balioa kentzetik ateratzen dena.

3.– Aurreko a) eta b) paragrafoetan, laguntzaren gai den inbertsioak ezingo ditu gainditu zenbateko hauek:

– Etxebizitzetarako: 600 euro, metro koadro erabilgarriez biderkatzetik ateratzen dena; eta 90 metro koadroko gehienezko azalera konputatuko da (familia ugariko kasuetan izan ezik, horietan gehienezko azalera 120 metro koadrokoa baita).

– Eranskinetarako diren eraikinen elementu komunetan eta pribatiboetan: 300 euro, metro koadro erabilgarriez biderkatzetik ateratzen dena; eta 30 metro koadroko gehienezko azalera konputatuko da.

4.– Burutzeko bidean diren eraikuntza edo urbanizazioko obretan izandako kalteen kasuan, babestuko den inbertsioaren muga konponketen guztirako aurrekontuaren % 70 izango da, Jaurlaritzak azkenekoz argitaratutako «Prezioen datu-base»arekin bat etorriz kalkulatuta, Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak eta aseguru-etxeek aurreikusitako kalte-ordainen balioa murriztu eta gero.

8. artikulua.– Mailegu-eragiketen ezaugarriak.

Mailegu-eragiketek, arau honen babesean eta horren indarrez finantza-erakundeekin izenpetzen den hitzarmenaren babesean formalizatuko diren subentzionagarriak finantzatuko baitituzte, ezaugarri hauek edukiko dituzte:

a) Maileguaren zenbatekoa lagundu daitekeen inbertsioaren % 100ekoa izan daiteke, goitik jota.

b) Amortizatzeko epea 7 urtekoa izango da. Hasierako gabealdia barne dela, zeina, oro har, 6 hilekoa izango baita.

c) Aplikatuko den gehienezko interes-tasa Euribor gehi % 2,50 izango da.

d) Irekitzeko komisioa baino ezingo zaio aplikatu, gehienezko kostua % 0,25ekoa izanik.

e) Maileguak modu linealean amortizatuko dira, kuota iraunkorra izanik, eta hiruhileko aldizkotasuna.

9. artikulua.– Laguntzen ezaugarriak.

1.– Hobari-tasa, oro har, 3 puntukoa izango da, eta arau honen babesean eta horren indarrez finantza-erakundeekin izenpetutako hitzarmenaren babesean formalizatzen diren eragiketen interesa murrizteko erabiliko da.

2.– Diru-laguntza guztia dena batera ordainduko zaio dagokion finantza-erakundeari, eta erakunde horrek mailegu-eragiketatik kapital bizia kenduko du. Diru-laguntzaren zenbatekoa honela kalkulatuko da: eragiketatik sortutako kostu erreala eta epe-muga bakoitzean ordaindu beharreko interesei zuzenean diru-laguntza aplikatzetik ateratzen den bera izango da. Horretarako erabiliko den eguneratze-tasa % 2,80koa izango da.

III. KAPITULUA

INDUSTRIA, MERKATARITZA, ARRANTZA, NAUTIKA-ARRANTZA, ZERBITZU ETA TURISMO ARLOETARAKO MAILEGUAK

10. artikulua.– Onuradunak.

Kapitulu honetan ezarritako laguntzen onuradun honako hauek izan daitezke: datozen artikuluetan adierazten diren betekizun berezien betetzea egiaztaturik, industria, merkataritza, arrantza, nautika-arrantza, zerbitzu eta ostalaritza edo turismoaren arloetako jarduerak burutzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona fisiko nahiz juridikoak. Horretarako, 2014ko urtarril, otsail eta martxoko denboraleek kaltetutakoek izan behar dute.

11. artikulua.– Laguntza jaso dezakeen inbertsioa.

1.– Dekretu honen ondorioetarako, lagundu daitekeen inbertsiotzat honako hau joko da:

a) Denboraleen ondorioz kalteturik geratu diren aktibo finkoak konpontzeko eta erosteko behar den zenbatekoa, Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak eta aseguru-etxeek aurreikusitako kalte-ordainen balioa eta laguntzen zenbatekoa murriztu eta gero.

Enpresa behar bezala martxan jartzeko beharrezko diren osagarrizko inbertsioak ere, behar izanez gero, lagundu ahalko dira. % 50ean jarriko da muga aktiboak konpondu eta erosteko.

b) Aktibo zirkulatzaileak birjartzeak dakarren zenbatekoa, aseguru-etxeek edota Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak aurreikusitako laguntzak edo kalte-ordainak zenbateko horretatik kendu ondoren.

2.– Hondatutakoen ordez enpresaren aktiboari gehitzen zaizkion aktibo finkoek, izaera desberdinekoak izanik ere, ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) Enpresaren xede sozialarekin zuzenean lotuta daudenak izatea.

b) Aktiboak lehenengo aldiz erabili edo abian jartzea.

c) Gehienez hiru urteko amortizazio-aldia ezarrita izatea.

d) Hirugarrenei ez lagatzea.

e) Enpresaren aktiboan gutxienez hiru urte iraun dezatela.

f) Enpresa eskatzaileak berak fabrikatuak, eginak edo garatuak ez izatea.

3.– Edonola ere, aktibo finkoetarako inbertsio-produktuek edo aktibo zirkulatzaileak birjartzeko proiektuek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egon beharko dute, aurtengo abenduaren 31 baino lehenago kontratatuta egon beharko dute eta diru-laguntza emateko ebazpenean finkatuko den epean burutu beharko dira.

4.– Aktiboen preziotzat haien balio garbia hartuko da, hau da: fakturatutako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kendu ondoren; eta, aktibo zirkulatzaileen kasuan, Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak tasaturiko galera garbiaren zenbatekoa.

12. artikulua.– Mailegu-eragiketen ezaugarriak.

Mailegu-eragiketek, arau honen babesean eta horren indarrez finantza-erakundeekin izenpetzen den hitzarmenaren babesean formalizatuko diren subentzionagarriak finantzatuko baitituzte, ezaugarri hauek edukiko dituzte:

a) Maileguaren zenbatekoa lagundu daitekeen inbertsioaren % 100ekoa izan daiteke, goitik jota.

b) Amortizatzeko epea 7 urtekoa izango da hasierako gabealdia barne dela, zeina, oro har, 6 hilekoa izango baita.

c) Aplikatuko den gehienezko interes-tasa Euribor gehi % 2,50 izango da. Eragiketa elkarrekiko berme-sozietateren batek babesten badu, aipatu interesa % 0,25 jaitsiko da.

d) Irekitzeko komisioa baino ezingo zaio aplikatu, gehienezko kostua % 0,25ekoa izanik.

e) Maileguak modu linealean amortizatuko dira, kuota iraunkorra izanik, eta hiruhileko aldizkotasuna.

13. artikulua.– Laguntzen ezaugarriak.

1.– Hobari-tasa, oro har, % 3 puntukoa izango da eragiketei aplikatutako interes-tasarekiko, betiere, erabaki honen babesean eta horren indarrez finantza-erakundeekin izenpetutako hitzarmenaren babesean formalizatzen diren eragiketetan.

Mailegu-eragiketa elkarren bermerako sozietate batek abalatzen badu, aipatutako laguntza hori % 0,25 gehituko litzateke.

2.– Diru-laguntza guztia, dena batera, aldi bereanordainduko zaio kasuan kasuko finantza-erakundeari, eta erakunde horrek maileguaren kapital bizia murrizteko erabiliko du kopuru oso-osoa eskuratzeko orduan.

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatutakoan, kopuru berbera eman behar dute, bai eragiketatik urte osorako sortzen den kostu errealak, bai eta epe-muga bakoitzean ordaindu beharreko interesei zuzenenean diru-laguntza aplikatuta ateratzen denak. Horretarako, % 2,80ko eguneratze-tasa erabiliko da.

IV. KAPITULUA

IBILGAILU AUTOMOBILAK BIRJARTZEKO LAGUNTZAK

14. artikulua.– Laguntzak.

Ibilgailu automobilak kaltetu badira, 2.500 euroraarteko laguntza esleituko da beste ibilgailu bat erosteko; betiere ibilgailuaren guztizko balioa izango da muga eta erosketa lau hilabeteren barruan egin beharko da, dekretu honek indarra hartzen duenetik hasita. Ibilgailuak sinatuta eta indarrean izan beharko dute nahitaezko asegurua. Kalteen ziurtagiria ofizioz lortu ahal izango da Administraziotik, 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu ibilgailuaren titularrak:

– Polizaren kopia eta/edo ibilgailuaren aseguruaren azken ordainagiria.

– Ibilgailuaren behin betiko bajaren deklarazioa, Trafikon izapidetua.

– Ibilgailu berriaren erosketa-faktura.

V. KAPITULUA

ONTZIAK BIRJARTZEKO LAGUNTZAK

15. artikulua.– Laguntzak.

Dekretu honen ondorioetarako, honako hauek lagundu daitezke diruz: ontzien matrikula-erregistroko zazpigarren zerrendan matrikulatutako laketontziak (kirola egiteko edo aisialdirako laketontziak, irabazi-asmorik gabe erabiltzen direnak, eta 2,5 eta 24 metro arteko luzera dutenak).

Ontziek sinatuta eta indarrean izan beharko dute derrigorrezko asegurua, eta egunean izan beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoren titulartasuneko portuetako zerbitzu orokorren eta berezien tasen ordainketa.

Ontziak kaltetu badira, 2.500 euroraarteko laguntza esleituko da beste ontzi bat erosteko; betiere ibilgailuaren guztizko balioa izango da muga eta erosketa lau hilabeteren barruan egin beharko da, dekretu honek indarra hartzen duenetik hasita. Kalteen ziurtagiria ofizioz lortu ahal izango da Administraziotik, 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu ontziaren titularrak:

– Titulazio nautikoaren kopia.

– Nabigazio-baimenaren kopia.

– Ontziaren aseguru-primaren polizaren eta azken ordainagiriaren kopia.

– Merkataritza Itsasketako Zuzendaritza Nagusiko ontzien matrikula-erregistroko idatzorriaren kopia non jasota baitago ontziari emandako behin betiko baja.

– Amarradura-baimenaren kopia.

– Ontziaren argazkia, matrikula agerian duena.

– Ontzi berriaren erosketaren faktura.

VI. KAPITULUA

PROZEDURA

16. artikulua.– Eskakizunak.

1.– Dekretu honetan arautzen diren laguntzak jasotzeko, eskakizun hauek bete beharko dira:

a) Pertsona edo erakunde onuraduna izatea, dekretu honetako 6., 10., 14. eta 15. artikuluetan adierazitakoarekin bat etorriz.

b) Dekretu honetako I., II., III. eta/edo IV. eranskinetan azaltzen diren inprimakien arabera aurkeztea eskabidea. Inprimakiak eskuratzeko lekuak:

- Eusko Jaurlaritzako egoitzak: arretarako puntuak (Zuzenean Zerbitzua):
  - Vitoria-Gasteiz, Ramiro de Maeztu kalea 10, behea.
  - Bilbao, Kale Nagusia 85.
  - Donostia, Andia kalea 13.

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko lurralde-bulegoak:
  - Vitoria-Gasteiz, Samaniego kalea 2.
  - Bilbao, Concha Jeneralaren kalea 23.
  - Donostia, Easo kalea 10.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitzako lurralde-ordezkaritzak:
  - Vitoria-Gasteiz, Samaniego kalea 2.
  - Bilbao, Kale Nagusia 85.
  - Donostia, Andia kalea 13.
- Trafikoko lurralde-bulegoak:
  - Vitoria-Gasteiz, Samaniego kalea 2.
  - Bilbao, Maria Diaz Haroko kalea 2, behea.
  - Donostia, Vitoria-Gasteiz kalea 3.
- Portuen lurralde-zerbitzuak:
  - Bilbao, Elkano kalea 3.
  - Donostia, Kaiko pasealekua 23.

Interesdunek www.ejgv.euskadi.net atarian eskura ditzakete argibideak, edo 012 –Zuzenean– telefonora deituz. Gainera, eskabide-inprimakiak eskura ditzakete interesdunek aurreko lerroaldeetan aipatutakoegoitzetan edo www.ejgv.euskadi.net atarian.

2.– Eskabidea interesdunak berak edo bera ordezkatzen duen pertsona batek egingo du, aurreko artikuluan adierazitako egoitzetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusten diren bideetako bat erabiliz.

3.– Eskabideak aurkezteko epea 2014ko uztailaren 30ean amaituko da.

17. artikulua.– Agiriak.

1.– Interesdunak eskabide inprimakiari (I. eranskina)honako agiri hauek erantsi beharko dizkio:

II. kapituluan araututako laguntzetarako (etxebizitzak):

a) IFK/NAN kopia.

b) Etxebizitzaren eta/edo eranskinen jabetza, edukitzea edo erabilera egiaztatzen duen dokumentua (eskritura).

c) Nahitaezko luzapeneko kontratua bada, etxebizitzaren eta/edo eranskinen titularraren baimena.

d) Familia ugariaren titulu-kopia, hala bada.

e) Hondatutako ondasunak konpontzeko edo berriz jartzeko egin behar diren inbertsioei eta gastuei buruzko txostena. Inbertsio-proiektuen edo aktibo zirkulatzaileak birjartzearen pro-forma-fakturak edo behin betikoak aurkeztu beharko dituzte aurrekoa frogatzeko.

f) Finantza-erakundeak eta pertsona edo erakunde eskatzaileak sinatutako mailegu-eragiketaren eskabidearen kopia (II. eranskina).

g) Beste edozein gorabehera, eskatzailearen iritziz esanguratsua baldin bada.

2.– III. kapituluan araututako laguntzak (industria, merkataritza, arrantza, nautika-arrantza, zerbitzuak eta turismoa):

a) IFK/NAN kopia.

b) Enpresaren ordezkariaren notario-ahalordearen kopia, pertsona juridikoen kasuan.

c) Hondatutako ondasunak konpontzeko edo berriz jartzeko egin behar diren inbertsioei eta gastuei buruzko txostena. Inbertsio-proiektuen edo aktibo zirkulatzaileak birjartzearen proforma-fakturak edo behin betikoak aurkeztu beharko dituzte aurrekoa frogatzeko.

d) Finantza-erakundeak eta pertsona eskatzaileak sinatutako mailegu-eragiketaren eskabidearen kopia (II. eranskina).

e) Beste edozein gorabehera, eskatzailearen iritziz esanguratsua baldin bada.

3.– IV. kapituluan araututako laguntzen kasuan(ibilgailu automobilak) eskabide inprimakiari (III. eranskina) honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a) IFK/NAN kopia.

b) Ibilgailuaren jabetza egiaztatzen duen dokumentua (zirkulazioko baimena).

c) Ibilgailuaren behin betiko bajaren adierazpena.

d) Ibilgailu berriaren erosketa-faktura.

4.– V. kapituluan araututako laguntzen kasuan(ontziak), eskabide-inprimakiari (IV. eranskina) honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a) IFK/NAN kopia.

b) Nabigazio-baimena.

c) Titulazio nautikoa.

d) Amarradura-baimenaren kopia.

e) Ontziaren argazkia, matrikula agerian duena.

f) Merkataritza Itsasketako Zuzendaritza Nagusiko ontzien matrikula-erregistroko idatzorriaren kopia non jasota baitago ontziari emandako behin betiko baja.

g) Ontzi berriaren erosketaren faktura.

5.– Edozein kasutan ere, Saileko organo kudeatzaile eskumendunak egokitzat jotzen dituen agiriak eta argibideak eska diezazkioke eskatzaileari, eskabidea behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

6.– Saileko organo kudeatzaileak ikusten badu pertsona edo erakunde interesdunak aurkezturiko agiriek ez dutela behar diren betekizunak konplitzen, jakinarazi egingo dio interesdunari egoera hori, eta hamar eguneko epea emango agiriak osa ditzan. Epea igaro eta eskatzaileak ez badioerrekerimenduari erantzun, besterik gabe eskaeran atzera egin duela pentsatuko da, eta

aldez aurreko ebazpen hori artxibatzeari ekingo zaio, eta 30/1992 Legearen 42. artikuluan jasotako moduan eman beharko da.

18. artikulua.– Ebaluazioa.

Eskariak, gaia dela-eta eskumena duen Saileko organoek txostena eman ondoren, Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzara bidaliko dira, VII. kapituluaren arabera eratu behar den Batzordeak ebalua ditzan.

19. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ebaluazio Batzordearen proposamenez, laguntza-eskariak honako organo hauek ebatzi beharko dituzte:

a) Etxebizitza eta eraikuntza arlokoak, Etxebizitzako sailburuordeak.

b) Industria, turismo, merkataritza, arrantza, nautika-arrantza eta zerbitzuetakoak badira, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren barruan gaia dela-eta eskumena duen organoak.

c) Autoei buruzkoak, Segurtasuneko sailburuordeak.

) Ontziei buruzkoak, Segurtasuneko sailburuordeak.

2.– Agindu honen babesean egindako eskariak esanbidez ebazteko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, eskariak aurkezten diren egunetik hasita. Epe horretan, berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskariak onetsitzat joko dira; horrek ez du esan nahi, ordea, administrazio-organo eskudunak esanbidezko ebazpenik eman beharrik ez duenik, eskatutako diru-laguntzaren inguruan.

3.– Eskaria egin duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak edo aseguru-konpainiak ez badute bukatu kalteak zenbatzeko prozesua (beren aseguru-kontratuarengatik jaso beharko lukeen kalte-ordaina zehazteari begira), laguntzak emateko prozedura etenda geratuko da harik eta erakunde horiek balorazio hori egiten duten arte.

20. artikulua.– Kontrola eta jarraipena.

Laguntzak eman dituzten sailetako organo eskudunek laguntzei kontrola eta jarraipena egingo diete, egokitzat jotzen dituzten ikuskaketak eginez, laguntzen zertarakoa ziurtatzeko.

21. artikulua.– Mailegua formalizatzea.

Laguntza emateko ebazpena jakinarazten zaionean, pertsona edo erakunde interesdunak mailegua formalizatu beharko du, jakinarazpenaren egunetik hasi eta gehienez ere hilabeteko epean, eta finantza-erakunde esleitzaileak polizaren kopia bidali beharko dio dagokion Sailari.

22. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Pertsona edo erakunde onuradunaren eskubidea onartu eta gero ordaindu egingo da diru-laguntza, dekretu honetan ezarritako moduan eta dekretu honen arabera finantza-erakundeek izenpetutako hitzarmenarekin bat etorriz.

23. artikulua.– Ikuskaritza-ahalmenak.

Administrazioak egiaztapenak egin ditzake eta bidezkotzat jotzen dituen agiriak eskatu, inbertsioak betetzen diren ala ez frogatzeko; izan ere, horiek burutzeko esleitu ziren laguntzak.

24. artikulua.– Amortizazioak eta ordainketak ez egitea.

1.– Mailegu-eragiketaren aurreratutako amortizazioa –partziala edo guztirakoa– egiteko, esleipen-ebazpena eman zuen organoari jakinarazi beharko zaio.

Aurreratutako amortizazioek onuradunari ez diote kostu gehigarririk ekarriko finantza-erakundeen aurrean.

2.– Tronkoa edo interesak, osoki edo partzialki, ez ordaintzea edota atzerapenaz ordaintzea ez-betetze kausa izango da, dekretu honen indarrez finantza-erakundeekin izenpetzen diren hitzarmenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

25. artikulua.– Ez-betetze espedienteak.

1.– Administrazioak hala eskatuz gero, pertsona eta erakunde onuradunek, 24 hileko gehienezko epean, laguntzen gai diren inbertsioak –7. eta 11. artikuluetan adierazitakoak– benetanburutu direla frogatu beharko dute.

2.– Pertsona edo erakunde onuradunak, bestalde, eskatu zuen eta emanzitzaion helbururako erabiltzen ez badu diru-laguntza, diru-laguntzaren jatorri izan zen jarduera burutzen ez badu, nahi ziren helburuetan aplikatu izana justifikatzenez badu edota, oro har, dekretu honetan nahiz laguntza emateko ebazpenean jarritako betekizunak konplitu gabe uzten baditu, emandako eta jasotako laguntzaren zenbatekoa itzuli egin beharko du, aplikagarri diren interesekin batera, diru-laguntzen araubideari buruz indarrean den araudiaz bat etorriz eta bidezko diren gainerako egintzak gorabehera. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira ondorio guztietarako.

3.– Laguntzak ematea ebatzi duten organoek hasiaraziko dituzte ez-betetze espedienteak.

4.– Laguntza emateko organo eskudunak pertsona edo erakunde onuradunaren ez-betetzea alegatu ahalko du, laguntza emateaebazten denetik hasi eta hurrengo lau urteetan.

VII. KAPITULUA

EBALUAZIORAKO SAILARTEKO BATZORDEA

26. artikulua.– Ebaluaziorako Sailarteko Batzordea.

1.– Dekretu honen babespean aurkeztutako laguntza-eskariak horretarako izendatutako batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu, eta batzordeak organo eskudunari aurkeztuko dio laguntzak emateko proposamena, berak ebazpena eman dezan. Batzordea Ogasun eta Finantza Sailari atxikita egongo da, eta honako kide hauek izango ditu:

a) Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona; lehendakaria izango da.

b) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren ordezkari bat.

c) Enplegua eta Gizarte Politiketako Sailaren ordezkari bat.

d) Segurtasun Sailaren ordezkari bat.

e) Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren ordezkari bat.

2.– Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako zuzendariak bere zuzendaritzari atxikitakoen artean aukeratzen duena –goi-mailako kidegokoa– arituko da idazkari.

3.– Ebaluaziorako Sailarteko Batzordeak jarduteko behar duen administrazio mailako laguntza eskainiko du Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina interesdunek errekurtsoa aurkez diezaiokete Jaurlaritzaren Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, Ogasun eta Finantzetako sailburuari, Segurtasuneko sailburuari eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari ahalmena ematen zaie, zeinek bere eskumen-eremuan, dekretu hau betearazteko behar diren xedapenak eta egintzak eman ditzaten. Zehatz esanda, Ogasun eta Finantza Sailari baimena ematen zaio gastu-kredituetan behar diren aurrekontu-aldaketak egin ditzan, dekretu honen babespean onartzen diren laguntzak ematea eta ordaintzea helburutzat hartuta.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko martxoaren 11n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

Ordezkoak eginez, Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.

(Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuko hamaikagarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz).

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

I. ERANSKINA, MARTXOAREN 11KO 34/2014 DEKRETUARENA

ESKABIDE-INPRIMAKIA

APARTEKO LAGUNTZETARAKO ESKARIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IZANDAKO DENBORALEAK DIRELA-ETA

Espediente-zenbakia: ..... (bete, dagokion eran)

Izen-abizenak: ..... adinez nagusia,

NAN: . ..... , jakinarazpenerako helbidea

(udalerria): ..... PK: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Telefonoa: ..... Fax zenbakia: ....., bere izenean edo/eta

honen ordez jardunez:

Enpresa (sozietatearen izena): .....

IFZ/IFK: ..... Industria Erregistroaren zenbakia: .....

Jarduera arloa (JEZ): ..... EJSN: .....,

sozietatearen helbidea (udalerria): ..... PK: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Telefonoa: ..... Fax zenbakia: .....

Higienezinaren jabe-erkidegoaren helbidea (udalerria): .....

PK: .....

Kalea: ..... Zenbakia: .....

ADIERAZTEN DU:

2014ko urtarril, otsail eta martxoan izandako denboraleak direla-eta kalteak sortu zirela honako elementu hauetan:

Aktibo finkoak.

Aktibo zirkulatzaileak.

Batez ere etxebizitzetarako diren higiezinen elementu komunak.

Azalera: ..... metro koadro erabilgarri.

Etxebizitza, garaje edo trasteleku erabileretarako elementu pribatiboak.

Etxebizitza: ..... metro koadro erabilgarri.

Garajea: ..... metro koadro erabilgarri.

Trastelekua: ..... metro koadro erabilgarri.

Batez ere burutze bidean dauden etxebizitzetarako diren eraikinak eta/edo urbanizazioak.

Kalteen zenbatekoa guztira: .....euro.

DEKLARATZEN DU:

Honako agiri hauek aurkeztu dituela:

IFZ/NAN kopia.

Enpresaren ordezkariaren notario-ahalordearen kopia, pertsona juridikoak izanez gero.

Etxebizitzaren eta/edo eranskinen jabetza, edukitzea edo erabilera egiaztatzen duen dokumentua (eskritura).

Etxebizitzaren eta/edo eranskinen jabearen baimena, nahitaezko luzapeneko kontratua izanez gero.

Familia ugariaren tituluaren kopia.

Ondasun kaltetuak konpondu edo birjartzeko beharrezkoak diren inbertsio eta gastuei buruzko azalpen-memoria.

Inbertsio- edo aktibo zirkulatzaileen birjarpen-proiektuen proforma- edo behin betiko fakturak.

Finantza-erakundearen eta eskatzailearen artean izenpetutako mailegu-eragiketaren eskabidearen kopia.

Aitortzen du, halaber, aparteko laguntzetarako eskabide honetaz gain:

Ez duela ez eskatu ez lortu inolako laguntzarik, ondasun kaltetuak konpondu edo birjartzeko beharrezko diren inbertsio eta gastuetarako.

Era berean, bere gain hartu du jakinarazteko konpromisoa, ondasun kaltetuak konpondu eta birjartzeko 2014an erakunde publiko edo pribatuei laguntza eskatzen badie.

Laguntza-eskabide hau izenpetzearekin batera interesdunak beren beregi ematen du baimena Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak nahi adina datu laga diezazkion Eusko Jaurlaritzari, hain zuzen ere, martxoaren 11ko 34/2014 Dekretuan jasotako laguntzak jasotako laguntzez baliatu ahal izateko. Datuok kaltetuak –edo berak baimendutako hirugarrengoek– eskatutako kalte-ordainari eta jasandako kalteen balorazioari buruzkoak izango dira.

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

Laguntza bat eman diezaiotela, martxoaren 11ko 34/2014 Dekretuaren (2014ko martxoaren 19ko EHAA, 54 zenbakia) babesean egiten diren mailegu-eragiketako eta dekretu honen indarrez finantza-erakundeekin izenpetutako finantza-kostua murrizteko.

..... n, 2014ko .....ren ..... a

Sinatuta: .....

(Ondasun-erkidegoa bada, interesdun guztiek sinatu behar dute)

II. ERANSKINA, MARTXOAREN 11KO 34/2014 DEKRETUAREN

FINANTZA-ERAKUNDEARI EGINDAKO MAILEGU-ESKARIA

MAILEGU-ESKARIA, EAE-N IZANDAKO DENBORALEAK DIRELA-ETA PRESTATUTAKO APARTEKO LAGUNTZEN BABESEAN

Izen-deiturak: ..... , adinez nagusia,

NAN zenbakia: ....., bere izenean edo honen ordez jardunez:

honen ordez jardunez:

Enpresa: .....

Higienezinaren jabe-erkidegoaren kokapena (udalerria): .....

PK: ..... Kalea: ..... Zenbakia: .....

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

Erakundea:

Sukurtsala:

Honako ezaugarri hauek dituen mailegua ematea:

Zenbatekoa:

Interes-tasa:

Epea:

Gabealdia:

Eguna eta erakundearen sinadura eta zigilua

Eguna eta eskatzailearen sinadura

III. ERANSKINA, MARTXOAREN 11KO 34/2014 DEKRETUARENA

ESKABIDE-INPRIMAKIAK - IBILGAILU AUTOMOBILAK

APARTEKO LAGUNTZETARAKO ESKARIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IZANDAKO DENBORALEAK DIRELA-ETA

Espediente-zenbakia: ..... (bete, dagokion eran)

Izen-abizenak: ..... adinez nagusia,

NAN: ..... , jakinarazpenak jasotzeko helbide hau duena:

(udalerria): ..... PK: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Telefonoa: ..... Fax zenbakia....., bere izenean edo/eta honen ordez jardunez:

Enpresa (sozietatearen izena): .....

..... IFZ/IFK: sozietatearen helbidea (udalerria): .....

PK: ..... Kalea: ..... Zenbakia .....

Telefonoa: ..... Fax-zenbakia: .....

ADIERAZTEN DU:

2014ko urtarril, otsail eta martxoko ekaitzek bere ibilgailuari kalteak eragin dizkiotela:

Marka: .....

Modeloa: .....

Matrikula: .....

DEKLARATZEN DU:

Honako agiri hauek aurkeztu dituela:

IFZ/NAN kopia.

Enpresaren ordezkariaren notario-ahalordearen kopia, pertsona juridikoak izanez gero.

Ibilgailuaren jabetza egiaztatzen duen dokumentua (zirkulazioko baimena).

Ibilgailuaren aseguruaren polizaren eta/edo azken ordainagiriaren kopia.

Ibilgailuaren behin betiko bajaren adierazpena.

Ibilgailu berriaren faktura edo proforma-faktura.

Hirugarrengo interesdunaren datuen alta-agiria (bankuaren datuak, kobratzeko).

Laguntza-eskabide hau izenpetzearekin batera interesdunak beren beregi ematen du baimena Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak nahi adina datu laga diezazkion Eusko Jaurlaritzari, hain zuzen ere, martxoaren 11ko 34/2014 Dekretuan jasotako laguntzak jasotako laguntzez baliatu ahal izateko. Datuok kaltetuak –edo berak baimendutako hirugarrengoek– eskatutako kalte-ordainari eta jasandako kalteen balorazioari buruzkoak izango dira.

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

Martxoaren 11ko 34/2014 Dekretuan (2014ko martxoaren 19ko EHAA, 54 zenbakia) araututako laguntza jasotzea.

..... n, 2014ko .....ren ..... a

Sinatuta: .....

IV. ERANSKINA, MARTXOAREN 11KO 34/2014 DEKRETUARENA

ESKABIDE-INPRIMAKIA - ONTZIAK

APARTEKO LAGUNTZETARAKO ESKARIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IZANDAKO DENBORALEAK DIRELA-ETA

Espediente-zenbakia ..... (bete, dagokion eran)

Izen-abizenak: ..... adinez nagusia,

NAN: ..... , jakinarazpenerako helbidea (udalerria): ..... PK: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Telefonoa: ..... Fax-zenbakia: ....., bere izenean edo/eta honen ordez jardunez:

Enpresa (sozietatearen izena): .....

IFZ/IFK: sozietatearen helbidea (udalerria):.....

PK: ..... Kalea: ..... Zenbakia: .....

Telefonoa: ..... Fax zenbakia: .....

ADIERAZTEN DU:

2014ko urtarril, otsail eta martxoko denboraleak direla-eta, bere jabetzako ontziak kalteak izan dituela:

Marka: .....

Modeloa: .....

Matrikula: .....

DEKLARATZEN DU:

Honako agiri hauek aurkeztu dituela:

Enpresaren ordezkariaren IFK/NANaren eta notario-ahalordearen kopia, pertsona juridikoak izanez gero.

Ontziaren jabetza egiaztatzen duen dokumentua (zirkulazio-baimena).

Ontziaren argazkia, matrikula edo izena ondo agerian duena.

Titulazio nautikoa egiaztatzen duen dokumentua.

Amarradura-baimenaren kopia.

Ontziaren aseguru-primaren polizaren kopia eta azken ordainagiria.

Ontzien matrikula-erregistroko idatzorriaren kopia non jasota baitago ontziari emandako behin betiko baja.

Ontzi berriaren faktura edo proforma-faktura.

Hirugarrengo interesdunaren datuen alta-agiria (bankuaren datuak, kobratzeko).

Laguntza-eskabide hau izenpetzearekin batera interesdunak beren beregi ematen du baimena Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak nahi adina datu laga diezazkion Eusko Jaurlaritzari, hain zuzen ere, martxoaren 11ko 34/2014 Dekretuan jasotako laguntzak jasotako laguntzez baliatu ahal izateko. Datuok kaltetuak –edo berak baimendutako hirugarrengoek– eskatutako kalte-ordainari eta jasandako kalteen balorazioari buruzkoak izango dira.

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

Martxoaren 11ko 34/2014 Dekretuan (2014ko martxoaren 19ko EHAA, 54 zenbakia) araututako laguntza jasotzea.

..... n, 2014ko .....ren ..... a

Sinatuta: .....